

Erroldatzeak atea irekitzen die zure eskubideei



Zer da erroldatzea?

Erroldatzea da bizilekutat hartu duzun udaleko erroldan izena ematea. Udal-erroldan, hiri edo herri batean bizi diren bizilagunen helbideak agertzen dira. Espainolek nahiz atzerriarrek eman dezakete izena erroldan; ez da beharrezkoa, beraz, egoitza-baimenik izatea.

Zertarako balio du erroldatzeak?

- Oinarrizko eskubideak eskuratzeko, hala nola, **HEZKUNTZA** eta **OSASUNA**.
- Leku batean zenbat denboraz bizi zaren egiaztatzeko (errotzea).
- Zure dokumentazioari (baimenak, bisatuak, naziotasuna...) dagozkion izapideak egiteko.
- Beharaldian gizarte-baliabideak eskuratzeko.

Erroldatzeko behar izango dituzun agiriak

1. Indarrean dagoen pasaporte edota NAN nahiz izena emateko zedula. Asilo-eskatzailleek galdetu errolda-bulegoan.
2. Erroldatzeko helbidea:

Helbide horretan bizi zarela egiaztatzeko moduak:

- Etxebizitza horretan erroldatuta dagoen adin nagusiko pertsona baten **baimena** (Udaletxean dago eskuragarri baimen-orria).
- **Etxebizitzaren jabea izanez gero:** eskritura edo ondasun higiezinaren gaineko zergaren ordainagiria aurkeztu beharko dira.
- **Etxebizitzan alokatuta egonez gero:** errentamendu-kontratua edo argi- edo telefono-ordainagiria.
- Erroldatzeari dagozkion izapideak beste pertsona batek egin ditzake. Horretarako, Udaletxean eskuragarri dagoen baimen-agiria bete beharko da.

Etxebizitzaren jabearen edo errentariaren baimenik ez edukiz gero:

- Udaleko Erregistroan erroldatzea eskatu beharko litzateke. Udaltzaingoak pertsona hori helbide horretan bizi dela egiaztatu beharko luke txosten baten bidez, eta erroldatzeari ekingo litzaioke.

Non erroldatu behar da?:

- Udaletxean, edo dagokion Barrutiko Udal Bulegoan. Erroldan izena ematea erabat doakoa da.

Helbidez aldatuko bazina:

- Helbidez edo hiriz aldatuko bazina, berriro erroldatu beharko zenuke, eta helbide berria adierazi. Bizileku berriko Udaletxeak jakinaraziko dizu aurreko bizilekutik at jarri zarela.

GARRANTZITSUA: Egoitza-baimen iraunkorrik ez baduzu,

ERROLDATU ZAREN EGUNETIK 2 URTE IGARO ONDOREN, ZURE UDALETXERA JOAN BEHARKO DUZU ERROLDA-ZIURTAGIRIA BERRITZERA. HORRELA EGITEN EZ BADUZU, ZURE ERROLDA-ZIURTAGIRIA IRAUNGI EGINGO DA.



ETXEBIZITZA ETA GABARTE
GABETAKO SARLA
Immigratio Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Inmigración

**ERROLDATZEKO ESKAERA
ONARTZEN EZ BADIZUTE,
ESKATU IDATZIZKO ERANTZUNA**



HARRESIAK APURTUZ
COORDINADORA DE ONGS
DE EUSKADI DE APOYO
A INMIGRANTES
ETORKINEN LAGUNTZARAKO EGGen
EUSKADIKO KOORDINAKUNDEA

Bailén 11 bis, bajo • 48003 Bilbao
www.harresiak.org